

EUSKARALDIA 2020

EUSKARALDIA

355
EUSKARA

HONDARRIBIKO EUSKARAN MURGIL ZAITEZ!

Hondarribiko euskara benetan ezagutzen duzula uste duzu? Denbora-pasa hauen bidez frogatu dezakezu. Ez dugu erraza jarri, baina zenbat asmatzen dituzun ikusteko prest bazaude hasi besterik ez duzu. Zorte on!

Hondarribiko hizkeran, gure natur ekosisteman aurkitu ditzazkegun landare eta animalien izenen hizkiak nahastu eta anagramak sortu ditugu. Inguruko irudiak lagungarri gisa dituzu:

FALTE _____

Gure inguruko basoetan arroxa koloreko landare hau aurkitu dezakegu. Hirusta ere esaten zaio.



ZARAPATEL _____

Zetazeoa, hamar bat metro luze, buru biribildua, gorputz sendoa eta metro bat baino gehiagoko isatsa; kolore urdin iluna ia ia beltza bizkaraldean eta zuria sabelean. Iparraldeko itsasoetan bizi da, eta foka eta baleen atzetik dabil; batzuetan Kantauriko kostaldera eta Mediterraneora iristen da.

TSUTXIOA _____

Huntza. Landare igokaria, beti berdea, sustraiak hurbileko gorputzei gogor heltzen dietenak.



LOREARAS _____

Arrosa koloreko arraina, bularreko hegatsen aldean, normalean orban beltz bat izaten du. Begi handiak ditu. Bere haragia oso preziatua da.

XABA BAKAÑELA:

Landare gramineoa, zurtoin zurezkoa, hutsala, malgua, eta hiru eta lau metro arteko garaierakoa. Leku hezeetan hazten da.

TXATAKATXINKA _____

Ugaztun karraskaria, 20 bat cm luze, beltz gorrixka bizkaraldetik, zuria sabeletik eta isatsan ile asko du. Basoetan hazten da, oso urduria eta arina da.




KILLIKARRI _____

Mokoaren puntatik isatsaren muturre-raino 20 cm-ko txoria da. Isatsa oso luzea eta urkatua, hegoak ere luzeak eta zorrotzak dituena. Lumaje zuria ez-tarran eta beltza gainerako gorputzean, oin motzak eta moko txikia pixka bat konkortua puntan. Gure lurretan sasoiko hegaztia da, intsektuak jaten ditu eta teilatuetako teilatu-hegaletan habia egiten du.



Hondarribiko euskara hiztegia hartu eta hitz gurutzatu honetan denetatik sartu dugu, saski - naskia da.



Bertikalak

- 1 "Kri, kri" kantan dabilen intsektua.
- 2 Herrira udara igarotzera etortzen dena.
- 3 Ausazko joku honetan, zenbakiak bonbo bate-tik ateratzen dira.
- 4 Trumoi giroa.
- 6 Hegan egiten duen eta urmael eta ibaietatik gertu bizi den intsektua.

Horizontalak

- 5 Uretara buruz botatzea, bainu bat hartzea.
- 7 Galerna, enbata, soberna.
- 8 _ _ _ _ _ aguro berandu da eta eskolako autobusa galduko dugu!
- 9 Itsasora begira, arroketan ikusten den harria. Normalean zabalera handikoa da eta inklinazio dezente du.
- 10 Otordua. Afaldu aurretik eta bazkaldu ondoren.

Ariketa guztietatik errazena iritsi da, Hondarribiko auzoen hizki zopa.

Zuk zure auzoa hemen agertzen ez den beste izen batekin izendatzen duzu? Horrela bada, nola?

X	A	P	O	R	T	U	A	A	I	N
A	K	Z	R	P	Z	E	J	L	J	K
M	A	I	G	U	P	A	M	D	A	A
U	N	M	A	N	B	J	E	E	I	R
T	K	I	K	T	A	G	N	Z	Z	K
E	O	Z	A	A	U	O	D	A	U	O
O	S	A	R	L	O	R	E	H	B	L
X	T	R	T	E	V	N	L	A	I	L
W	A	G	E	A	I	U	U	R	A	A
S	U	A	G	W	F	T	P	R	Y	J
N	P	L	I	F	T	Z	G	A	C	S

Galdeiera sorta honetatik ea zenbat asmatzen dituzun, batzuk besteak baino errazagoak dira, ez zaitez fidatu! Familia artean egin eta ea zenbatek gainditzen duzuten...

1.- Hondarribian, igandero, auzo ezberdin batean musika entzun daiteke. Zergatik den ba al dakizu? Zeintzuk dira? Ekintza hau ze izen jasotzen du? Zer jotzen dute? **Pista:** Igande goiz batean, 8ak aldera jaiki eta lehiotik zer entzun dezakezun adi egon zaitez, agian zure auzoan ari dira!

2.- Hondarribiko armarria osatzen duten elementuak zeintzuk dira? Hondarribiko Kale Nagusian hiriko zenbat armarri daude?

3.- Aurreko galderari lotuta... Armarria osatzen duten elementuetatik, zeintzuk dira Hondarribiko zigiluan, antzinatek agertzen zirenak? **Pista:** Bi dira, eta gaur egun zigilua nolakoa zen ikusi ahal izateko alde zaharreko elizara joan behar duzu.


4.- Ttopara zer den ba al dakizu? Kontuz! Hondarribiko Arma Plazan dagoen tabernarekin ez konfunditu. Senideei galdetu ea Hondarribiko tradizio honen inguruan zer dakiten.


5.- Harresia ze harri motaz egina dago? Zure ustez, harria nondik atera zuten?

6.- San Pedro kalean aurkitzen den *Zeria* jatetxearen izenaren jatorria zein den ba al dakizu?

7.- Hondarribian barrena ibiltzeko ia ia autorik ez dugu behar, baina XIX. mendaren amaieran, hiriak ze garraio mota ote zuen bururatzen al zaizu?


8.- Hizki zopa bete ondoren, galdera hau erantzutea oso erraza egingo zaizu. Jakingo zenuke argazki hau Hondarribiko ze auzoan egina dagoen? Auzoaz gain argazkiaren inguruan informazio gehiago baduzu gurekin partekatu dezakezu.





9.- Hurrengo irudian dagoen gizona, zer egiten ari da? Gaur egun horrelakorik ikusi al duzu?

10.- Eta hurrengo irudiari buruz zer deritzozu? Arrantza munduan emakumearen papera oso garrantzitsua izan da eta Gipuzkoako zenbait portuetan, horien artean Hondarribikoan, oraindik ere lanbide hau bizirik jarraitzen du, zertaz ari garen ba al dakizu? Argazkikoaz gain, emakumea arrantzan betetzen zuen beste zereginik bururatzen al zaizu?



Hondarribiaz hitz egiten duen abesti hau zein den ba al-
dakizu? Abeslaria zein da? Zenbait hitz kendu dizkiogu,
senideei galdetu zalantzatan bazaude baina, kanta ezagu-
tuko duzula ziur gaude. Amizu ba ta kantatzen jarri zai-
tez!

Izenburua: _____

Abeslaria: _____

Maite zaitut, _____, zoratzeraino!

Ederragorik ez da ____ baino!

Zeurea dut nik begian _____ ,
ta zurekin berriz penak zer dira?

Maite bat badut _____

gorri, berde ta _____ ;

ikusten dutenen ustean
urre-jantzizko _____ .

Ez du parerik ederrean

ene maiteño _____ ;

ni asteroko hondarrean
joaten natzaio _____ .

Maite zaitut...

_____ zaitut, amesten,
ederretan ederrena,
baina ez bazaitut _____
ez zait asetzen barrena.

Eta ikusten zaitudanero

maitez hartzen zaitut laister;

laztan eta _____ gero

joan ohi naiz _____ bazter.

Maite zaitut...

Bere _____ ez dira
beste inorenak bezala:
urdina du begi _____ ,
gorri-berdea _____

_____ koloreak jatean
oheratzen naiz bakarrik:
ez dago _____ atean
nirea ainako izarrik.

Maite zaitut, maite, _____ !

_____ ez da zu baino!

Zeurea dut nik begian argia,
bihotzeneko, _____ !!!



Kaxiana, Muxarra eta Txantxano kontu-kontari.

Hondarribiko hiru bizilagun hauek hiriko historia biziaren bi pasarte zurekin partekatu nahi dituzte. Iraganetik asko ikasi daiteke eta hura oinarri hartuz etorkizuna eraiki. Irakurtzeko prest zaudete?

Hondarribiko balea nekaezina.

1881- 1892 urte artean gure Amuitz uhartera eta Higer lurmuturrera ia urtero bale bat hurbiltzen zen.

Gurera etorri zen lehenengo aldian, 1881ean hondartuta geratu zen eta marea igo arte ez zen hortik atera. Lehenengo agerraldi horrek haren tamaina handia, haren ohi-tura errotuak eta Amuitz uhartearekiko zaletasuna, baita gure istorio honetan garrantzitsuena dena, hain zuzen, hura ehizatzearen zailtasuna argi gelditu ziren.



Hurrengo urtean bueltatu zen eta prentsan argitaratua izan zen. Donostiatik etorritako arrantzaleek hura harrrapatu nahiean ibili ziren eta horretarako Ipar Ameriketatik arpoi jaurtigailua ekarri zuten. Buruan zauri bat egitea lortu zuten. Hiltzeaz zegoela pentsatu zuten baina hortik zortzi egunetara berriz kostaldean zegoen. Eta ehizatzen saiatzen ari ziren balea hori zela nola jakin zezaketen? Hona hemen erantzuna: inguruko uretan ehizatzen zen *Eubaleana glacialis* izen zientifikoa duen balea mota identifikatzeko, burualdean dituzten maskurrei erreparatzen zitzaion. Gogorgune horiek nortasun agiri baten antzekoa ziren eta balea honek zauria edukita ez zuen zalantzarako lekurik uzten.

Hurrengo urteetan balearen ibilerek, Euskal Herriko mugetatik kanpo ere, oihartzun handia lortu zuten. Egunean zehar Higer lurmuturraren inguruan lo zegoen eta arratsalde partean berriz, Biarritzeraino buelta ematen zuen. Hondarribiko zein inguruko herrietakoak arrantzatzeko prest zeuden. Baina ez zen batere erraza eta arpoiaren jaurtiketaren ondoren are zailagoa bihurtu zen, ontzietaz



beldur zen eta. Urteak pasa eta haren arrastorik ez zen ikusten 1887an ontzi batekin Higer lurmuturretik gertu talka egin zuen arte, beraz, oraindik ere inguruko kostaldean lo egiten zuela argi gelditu zen.

Baleak, hura arrantzatzea zaila jartzeaz gain, Frantziar kostaldeko inguruko herrietarako arazoa izaten hasi zen eta horregatik neurriak hartu zituzten. Arazoak honakoak ziren: nabigaziorako arriskua eta arrantza eragozpena. Gauzak horrela, Rocheforteko Itsas Almiranteordeak lurrun-ontzi kostazainek bertatik balea uxatzea erabaki zuen. Nola joan zitzaion ez dakigu, baina urte bete eta erdi geroago, balea berriro hemen zen. 1889an zein 1891an hemendik izan zen berriz ere. Urte horietan prentsan berataz ez zen hainbeste hitz egin, baina 1892an "*La gran ballena Leticia ha vuelto a hacer su visita anual*" izenburuarekin artikulua bat argitaratu zen. Uneren batean norbaitek horrela izendatu zuen eta prentsak hori ateratzean, bizirik zegoela aditzera ematen zuen.

Urteetan zehar baleari, *Leticia* izendapenaz gain, beste batzuk ere eman zitzaizkion, besteak beste, "*la famosa*", "*la célebre*", "*la tenaz ballena de Hondarribia*"... Azken hori, euskaraz "Hondarribiko balea nekaezina" esanahia duena, egokiena zirudienez, hirian horrela ezagutu izan da. Noski, nekaezinarena ezizena da eta balea noizbait nekatu egin zela argi dago. Muxarra arrantzaleari balearekin zer gertatu ote zen galdetuz gero, bere erantzuna honakoa da:

"*Eubaleana glacialis* espezieak, batez beste, 70 urteko bizitza izaten du. 1881 - 1892 urteetan Hondarribiko uretan ibili zen balea horren tamaina handiagatik adin handikoa izango zela eta beraz, modu naturalean bere bizialdia amaitu zela pentsatzen dut."





Artzuko Matxinen armariaren historia.

Hondarribiko Ubilla kaleko 4. zenbakian, alde zaharreko etxe askotan beza-la, armarri eder bat dago, Artzu familiaren armarria da. Aukera baduzu, armarria ikustera joan zaitez eta jarraian kontatuko dizugun pasartea hobeto ulertuko duzu.

1280 urtean Felipe III. Frantziako erregeak Hondarribia hiribildua setio-pean jarritz eraso zuen. Une horretan, Hondarribia Gaztelako Erreinuaren menpe zegoen eta Gaztelako erregea bera, Alfontso X., Donostian zegoen. Alfontso X. Hondarribia setiatua izaten ari zela jakitean harantz joan zen bere tropak lagun zituela Jaizkibelgo mendia zeharkatuz. Bertan, zonaldea ondo ezagutzen zuten pertsonak bildu zituen frantziarren kontra-estrategia prestatzeko asmoz. Horien artean Artzuko Matxin zegoen. Artzutarrak bide egokia adierazteaz gain bi neurri hartzeko proposamena egin zuen: batetik, zaldien ferrak oihalekin estaltzeko proposatu zuen, soinurik ez egiteko frantziarren gana hurbiltzen zihoazen bitartean eta bestetik, beren alkandorak armaduraren gainetik janzteko proposatu zuen, frantziarren gandik bereiz ahal izateko erasoak irauten zuen bitartean. Horrela goizaldea baino lehen frantziarren kanpamendua ustekabean erasotzea lortu zuten eta hauek ihesi joan ziren, baina gure artzutarra, Frantziako erregea zegoen dendaraino iritsi zen eta bost frantziar zaldun hil ondoren ia-ia erregea bera hil zuen, nahiz eta honek azkenean ihes egitea lortu. Gaztelako erregeak, Artzuko Matxin saritu zuen Gornutzeko eremua oparituz, baita hiri harresituko lur eremu bat ere. Hondarribiar guztiak ere saritu zituen erregeak, setioan izandako jokaeragatik. Orain, historia ezagututa ulertu dezakezu zergatik ikusten diren bost buru armarrian eta "Soy de Arsu" inskripzioa armariaren oinean.

Hondarribiko hiriak hiru arima ditu: hiriko kaleek, Jaizkibel mendiak eta Kantauri itsasoak zein Bidasoako ibaiak ematen diotena. Bertan, kaletarrak, baserritarrak eta arrantzaleak batera bizi dira, eta bereziki azken bi horiek hiztegi aberatsa dute. Haien bizimoduaren inguruko hitz sorta bat prestatu dugu, baten bat ezagutzen al duzu?

Amuitz: Olatu mota. Izenak Higer lurmuturreko Amuitz uhartearekin zerikusia izango du. Itsasoak uharte horren kontra lehertu eta gero sortzen den olatu motari esaten ohi zaio.

Surbesta: Arrantzaleek garai batean, euritako erabiltzen zuten txanoa xira antzera, kapeluaren gainean jartzen zena. Fernando Artola "Bordari" idatzitako gabon kantan horrela dio: "arrauna bizkarrian, surbesta eskutan hasi gaiten guztiok, iñalez kantetan".

Sastakatu: Apuru batetik ateratzeko sareak azkar josi. Adibidez, arrantzaleek antxoaren garaian, goizean kaian sartu eta arratsaldean berriz atera behar baziren eta sareetan zulo handia bazuten, arroka-
ren batek egina, sarekonpontzaileei ez zieten hori guztia konpontzeko debora ematen. Beraz, zegoen bezala, bustia, korrika eta presaka josi behar izaten zuten.

Txakurrena: Hondarribian orain dela oso gutxi arte arrantza ontzietan erabili izan den dirua zatitzeko sistemaren azpijoko bati esan ohi zaio. Garai batean, barkuetan txakurra eramaten zuten. Amutik libratzen ziren arrainak azkar harrapatzen abila ziren. Txakurrak bere lana ondo betetzen zuen, beraz, bere irabazien zatia merezi zuen. Bentan irabazitako dirua zatitzerakoan, **eskifaia** (tripulazioa) zazpi lagunekoa bazen, manta gainean zortzi zati egiten ziren.

Batik bat **ardoran** (arraiak iluntasunean sortutako argitasuna edo dizdira. Antxoak edo sardinak sortutakoari bereziki ardorako arraia deitzen zaio) egiten omen zen. Zenbat arrain, hainbeste diru. Erdia armadorearentzat, barkuko gastuen-

tzat etabar, beste erdia eskifaiarentzat: zenbat lagun gehi bat. Bakoitzaren zatia agerikoa zen, bat hori, poltsa isila, arrantzaleek ez besteek ez zekitena zen. Batzuetan, egindako arrantzaren gehiena ohi bezala saltzen zen, kaxa batzuk aparta-
te utzita eta kaxa horien irabazia isilean eskura arrantzaleari ematen zitzaion. Ez amak ez emazteak horren berri ez zuten. Jakin bazekiten egiten zena, noski, baina sekula aldiro jasotzen zutena.

Jaskia: saskia. 3 mota bereizi daitezke:

1. Jaski uarakua: belarra, barazkiak eta antzekoak eramateko. Hiruetatik handiena.
2. Jaski potorrua: harria, graba eta abarrekoak eramatekoa. Tamaina ertainekoa.
3. Jaski pajinakua: saski bajua, hauetatik txikiena.

Endana: Landare edo zuhaitz ilara, lerro edo ildaska. Beste esanahi bat ere izan dezake, oraintxe bertan edo segituan egin. "Endane berian egin".

Leikua: leiku gorriak eta leiku txuriak, babarruna adierazteko.

Ihotu: errotan alea hirin bihurtzea.


Pajina: auzolana. Lagunen eta bizikideen arteko zereginak definitzeko erabiltzen den esamoldea. Aintzina auzokoen artean eginiko lanak adierazteko erabili ohi zen, Euskal Herrian oso errotua dagoen hitza. Gaur egun lankidetzaren sinonimo bezala erabiltzen da.



BAKAILAOA



SARDINA



ERREBOILOA




PERLOIA



BARBARINA



KRABARROKA



TOILA



ZAPOA



HEGALMOTZA



ITSAS AINGIRA



HEGALUZZEA




EZPALARTA



ALMEJA



GANBA



ARMIARMA



OLAGARROA

Irudimena hegan egiten utzi eta
itsas animaliak kolorez bete itzazu!



BALEA



BERDELA



MUXARRA



FANEKA



IZURDEA




KATVARRAINA



ANTXOA



EZPATA-ARRAINA



URRABURUA



POSTEGUA



BAKALADA



TXIBIA



TXIPIROIA



LANPERNA



TXITXARROA



ZIGALA



Euskara ulertzen duten hiztunen arteko hizkuntza ohiturak aldatzeko ariketa soziala da Euskaraldia, gizartearen gune guztietara zabaldua eta denborari dagokionez mugatua. Euskaraldiaren helburu nagusia herritarren hizkuntza ohiturak aldatuta euskararen erabilera handitzea da.

Goazen euskara gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan erabiltzera, goazen Hondarribian euskaraz hitz egitera!



Margotu Hondarribia liburuaren zozketan parte hartu nahi baduzu, abenduak 4a arte erantzun orria helarazi behar diguzu:

- armaplaza@armaplaza.eus helbidera bidali.
- ARMA PLAZA kultur eta turismo informazio gunean utzi. Ordutegia: Astelehenetik larunbatera: 10:00 - 18:00 bitarte eta igandetan: 10:00 - 14:00 bitarte.

Informazio gehiago: www.armaplaza.eus edo 943 64 46 23 telefono zenbakian.



Margotu Hondarribia liburuaren irudietako bat.

Iturriak:

*Itsasoa gara, Hondarribia Ezagutu proiektuaren 2. unitate didaktikoa.
Kapen karta jokoa, Eñaut Aiertzagüena ilustratzailearen irudiak.
Margotu Hondarribia, Jorge Arranz ilustratzailearen irudiak.
Hondarribiko Udal Agiritegiko argazkiak.
Hondarribia Herri Aldizkaria.
Hondarribiko hitzak facebook kontua.*



ARMA PLAZA
FUNDAZIOA

